

## **ARRASATE / Pello Añorgak ipuinak nola kontatu irakatsiko die haur txikien gurasoei urtarrilean**

Irailaz geroztik Bularretik Mintzora egitasmoa Arrasateko ikastetxeetan gauzatzen ari da Udal Liburutegia, azaroan bi hitzaldi antolatu zituen: Juan Kruz Igerabide eta Juan Karlos Alonso.

Urtarrilerako prest dute Pello Añorga idazle eta kontalariarekin tailer bat gurasoei begira: ipuinak nola kontatu izango da gai nagusia.

Bi orduko tailera da, 6etatik 8etara, euskaraz eta lau egunetan zehar izango da Kulturaten, Galtzagorri elkarteak antolatuta eta Arrasateko udaleko kultura sailak babestuta.

'Nola sortu espazioak elkar entzuteko, eta nola aukeratu eta kontatu liburuak' izango saioaren gaia. 0-6 adin tarteko haurren gurasoei zuzendua dago.

Datak 2012ko urtarrilaren 24, 25, 31 eta otsailaren 1a dira, eta ordua arratsaldeko 18:00tan. Lantegia euskaraz eta doakoa izango da. Gehienez, 20 parte-hartzailerentzako tokia egongo da.

Saioak hiru atal landuko ditu. Batetik elkar entzuteko espazioa sortzen (hitura finkoak sortzen, zentratzeko estrategiak.).

Bigarrenik, liburuak aukeratzen kontatzeko (kontakizunen sailkapena, liburuak begiratzen.).

Eta hirugarrenik, hurrei kontatzen (bularretik Mintzora CD-liburua; lehen kontutxoak, ahots gora irakurtzen, irudi liburuak kontatzen, amandre ipuinak.; kontutxoak elkarrekin asmatzen, eta bibliografia)